

GETXOKO INGURUMEN ARETOKO URRIKO PROGRAMAZIOA

HILABETE OSOAN ZEHAR

ARGAZKI LEHIAKETA: NATURAN IRAKURTZEN

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek argazki bat bidali beharko digute Getxoko ingurune natural edo hiri-parkeren batean irakurtzen. Argazkia info@ingurumenaretoagetxo.eus helbide elektronikora bidali behar da, e-mailean argazkia non dagoen eta berdegune, parke edo eremu natural horretan zer gustatzen zaizun edo zer nabarmendu nahi duzun adieraziz.

Bi kategoria daude: 6 eta 15 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak. Lehenengo kategorian, pintura-maleta bat izango da saria. Bigarren kategorian produktu ekologikoen saski bat izango da saria. Bidalitako argazkiak Ingurumen Aretoko Sare Sozialetan argitaratu ahal izango dira (Facebook, Twitter edota Instagram. Ez da beharrezkoa aurpegia ikustea, baina bai ikusi behar da argazkia ateratako eremua).

Lehiaketaren oinarriak www.ingurumenaretoagetxo.eus webgunean kontsulta daitezke.

URRIAK 5

STREET ESCAPE: GELDIARAZI INBADITZAILEAK!

8 urtetik gorakoentzako abentura joko da. Parte-hartzaileek hainbat enigma eta buru-hausgarri deszifratu beharko dituzte Arkaitzi laguntzeko. Izan ere, biologo oso despistatua da, eta espezie inbaditzaile bat autoktono batekin nahastu du. Jarduera honen bidez, espezie exotiko inbaditzaileek sortzen dituzten arazoak ezagutaraziko dira, baita gure inguruko espezie batzuk ere. Ohiko Escape Room-etan ez bezala, gainditu beharreko probak, pistak, objektuak eta enigmak ez daude gela bakar batean, espazio ireki batean baizik. Beraz, parte-hartzaileak Ingurumen Aretoko hainbat espaziotatik mugitu beharko dira 4 espezie exotiko inbaditzailearen izenak aurkitu arte. Horrela, Arkaitz biologoaren tranpan erori den animalia autoktonoa askatu ahalko da. Ordubete baino lehen egin ahal izango duzue?

Hiru txanda egingo dira: 10:15, 11:15 eta 12:15. Beharrezkoa da alde zurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

URRIAK 6

ASTE KLIMA: KLIMA ALDAKETARI BURUZKO ESPERIMENTUAK FAMILIAN

6 urtetik gorako haurrentzako jarduera da, eta Aretoko hezitzaileak, parte-hartzaileen laguntzarekin, 3 esperimendu garatuko ditu, berotegi-efektua eta klima-aldaketa nola sortzen diren eta planetarentzat zer ondorio dituen ezagutarazteko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da alde zurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

URRIAK 12

BIO-DIBER TAILERRAK: HONTZAK KARTOIZKO HODIEKIN (HEGAZTI MIGRATZAILEEN MUNDUKO EGUNA)

Eskulan tailer honetan 6 urtetik gorako haurrek kartoizko hodiak berrerabili ahal izango dituzte hontz politik egiteko. Jarduerak irauten duen bitartean, inguruko hegaztien argazkiak erakutsiko dira, Getxoko biodibertsitatearen zati bat ezagutzera emateko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

URRIAK 13

HEGAZTIEN KOLOREAK

Gure inguruko hegazti batzuek koloreak galdu dituzte. Kolore horiek berreskuratzen lagunduko diezue? Jarduera honen bidez, Ingurumen Aretotik inguruan pista-joko erraz bat egingo da, eta parte hartzen duten taldeek 6 hegazti misteriotsuak zein diren asmatu beharko dute, eta benetako koloreekin koloreztatu beharko dituzte. Gainera, jarduera amaitzerakoan, Baliabide Zentroko "Getxoko hegaztiak" argazki-erakusketa bisitatu ahal izango da. Gomendatutako gutxieneko adina: 6 urte.

Ordutegia: 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 eta 13:00. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

URRIAK 19

HELDUENTZAKO TAILERRA: IDAZKETA NATURAN

Tailerra batez ere praktikoa da, helduei zuzendua. Helburua idazteko eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea eta areagotzea da, baita inguratzen gaituen ingurumenaren edertasunaren eta errealitatearen inguruan sentibilizatzea ere. Jarduera hau Carmen Planok zuzenduko du eta Boluen eta Ingurumen Aretotik garatuko da.

Eguraldi ona egiten badu, 10:15ean hasiko da Boluen eta ondoren Aretotik igoko da, eta 13:15ean amaituko da. Euria egiten badu, jarduera Ingurumen Aretotik egingo da.

Ordutegia: 10:15-13:15. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

URRIAK 20

ESCAPE ROOM: ZABORRETA DOKTOREA

Zaborreta Doktoreak ingurumenarekiko sortu duen plan suntsitzailearekin bukatzeko beharra dago. Horretarako, familiek eta taldeek hainbat froga eta pista gaudituz eta topatu beharko dituzte, doktoreak bere egitasmoa lor ez dezan eta Ingurumen Aretotik garaiz ihes egiteko. Modu aktibo zein dibertigarri baten ingurumen arlo desberdinak jorratuko dira: hondakinen kudeaketa, biodibertsitatea, kontsumo arduratsua, besteak beste.

Ekimen hau ordu eta erdikoa da eta gehienez 6 kideko taldeetan egingo da. Bi txanda egingo dira: lehenengo saioa 10:30ean hasiko da eta bigarrena 12:15ean. Beharrezkoa da aurretik izena ematea eta gutxienerako adin gomendatua 8 urtekoa da.

URRIAK 26

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK: MARTIARTUKO BIDE ZAHARRA (IBILBIDE GIDATUA)

Bolue harana zeharkatuz, Martiarturako Erdi Aroko bide zaharrak Berangoko eta Getxoko Larrañazubi auzoak eta Erandioko Martiartu familiaren dorretxea lotzen zituen. Bide horren zati bati jarraituz, eta Bolue errekan zehar doan ibai-bide batetik abiatuz, ibilbide gidatu bat egingo da hezegunetik Martiartuko dorretxeraino. Ibilbide horren bidez, Bolue haranaren alderdi naturalak eta historikoak ezagutaraziko dira, Getxoko udalerriko txokorik naturalenetako batzuk bertan baitaude. Gomendatutako gutxienerako adina: 8 urte.

Ordutegia: 10:30 – 13:30 (joan-etorria). Gomendatutako gutxienerako adina: 8 urte.

Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

URRIAK 26

AUTOGIDATUTAKO JARDUERA BERRIA: NATURAN BIZIRAUTEA

Egunen batean basoan galduko bazina, bizirauteko zure gida eta naturan aurki dezakezuna soilik erabiliz bizirauteko gai izango zinateke?

"Naturan bizirautea" jarduera berri bat da, eta bertan parte hartzen duten taldeek 4 proba gainditu beharko dituzte ordubete baino gutxiagoan: orientatzen ikasi, aterpea eraiki, janaria bilatu, zauriak elementu naturalekin sendatzen ikasi eta sua egiten ikasi. Hori guztia Aretoan sortu ditugun materialak eta gidak erabiliz.

4 txanda egingo dira (10:30, 11:15, 12:00 eta 12:45). Gomendatutako gutxienerako adina: 10 urte. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

URRIAK 27

ESKULAN IRAUNKORRAK: HALLOWEEN-ERAKO APAINGARRIAK

Halloween ospakizuna aprobetxatuz, parte hartzaile txiek hainbat apaingarri jasagarri egin ahal izango dituzte, hala nola armiarmak, sorginak, kalabazak eta abar, arrautzak eta kartoia bezalako hondakinak berrerabiliz.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea. 6 urtetik gorakoentzat.

PROGRAMACIÓN DE OCTUBRE DEL AULA AMBIENTAL DE GETXO

DURANTE TODO EL MES

CONCURSO FOTOGRÁFICO: LEYENDO EN LA NATURALEZA

Las personas que quieran participar en este concurso tendrán que enviarnos una fotografía de sí mismas leyendo en algún entorno natural o parque urbano de Getxo. Hay que enviar la fotografía al correo electrónico info@ingurumenaretoagetxo.eus, indicando en el email dónde está sacada la foto y algo que te guste o quieras destacar de esa zona verde, parque o zona natural.

Hay dos categorías: de 6 a 15 años y de 16 en adelante. En la primera categoría el premio será un maletín de pintura. En la segunda categoría el premio será una cesta de productos ecológicos.

Las fotografías enviadas podrán ser publicadas en las Redes Sociales del Aula Ambiental (Facebook, Twitter o Instagram. No hace falta que se vea la cara, pero sí la zona donde está sacada la fotografía).

Las bases del concurso pueden consultarse en www.ingurumenaretoagetxo.eus.

5 de OCTUBRE

STREET ESCAPE: ¡DETENGAMOS A LAS INVASORAS!

Se trata de un juego de aventura para mayores de 8 años. Los participantes deberán descifrar varios enigmas y rompecabezas para ayudar a Arkaitz. De hecho, es un biólogo muy despistado que ha confundido una especie invasora con una autóctona. A través de esta actividad se darán a conocer los problemas que generan las especies exóticas invasoras, así como algunas especies de nuestro entorno.

A diferencia de los tradicionales Escape Room, las pruebas, pistas, objetos y enigmas a superar no están en una sola habitación, sino en un espacio abierto. Por tanto, los participantes deberán desplazarse por diferentes espacios del Aula Ambiental hasta encontrar los nombres de 4 especies exóticas invasoras. Así, se podrá liberar al animal autóctono que ha caído en la trampa del biólogo Arkaitz. ¿Podrán hacerlo en menos de una hora?

Se realizarán tres turnos: 10:15, 11:15 y 12:15. Es necesario inscribirse previamente y recibir la confirmación del Aula Ambiental.

6 de OCTUBRE

SEMANA DEL CLIMA: EXPERIMENTOS SOBRE EL CAMBIO CLIMÁTICO EN FAMILIA

Se trata de una actividad para txikis de más de 6 años, en la que el educador del Aula desarrollará con la ayuda de los y las participantes 3 experimentos distintos para dar a conocer cómo se produce el efecto invernadero y el cambio climático, y qué consecuencias tiene para el planeta.

Se realizarán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

12 de OCTUBRE

TALLERES BIO-DIVER: BÚHOS CON TUBOS DE CARTÓN (DÍA MUNDIAL DE LAS AVES MIGRATORIAS)

En este taller de manualidades los y las txikis mayores de 6 años podrán reutilizar tubos de cartón para hacer unos simpáticos búhos. Durante la actividad se mostrarán fotografías de aves del entorno para dar a conocer parte de la biodiversidad de Getxo.

Se realizarán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

13 de OCTUBRE

LOS COLORES DE LAS AVES

Algunas de las aves de nuestro entorno han perdido los colores, ¿nos ayudáis a devolvérselos?

Mediante esta actividad, que consiste en un sencillo juego de pistas por las inmediaciones del Aula Ambiental, los grupos participantes tendrán que descubrir cuáles son las 6 aves misteriosas y colorearlas tal como son. Además para finalizar la actividad podrás visitar la exposición fotográfica "Las aves de Getxo" del Centro de Recursos. Edad mínima recomendada: 6 años.

Horario: 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 y 13:00. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

19 de OCTUBRE

TALLER DE ESCRITURA EN LA NATURALEZA PARA PERSONAS ADULTAS

Se trata de un taller eminentemente práctico, dirigido a personas adultas. El objetivo es fomentar e intensificar la afición por escribir y leer, así como sensibilizar respecto a la belleza y realidad Medioambiental que nos rodea. Esta actividad será dirigida por Carmen Plano y se desarrollará en Bolue y en el Aula Ambiental.

Si hace buen tiempo se comenzará a las 10:15 en Bolue y después se subirá al Aula, donde finalizará a las 13:15.

En caso de lluvia toda la actividad se realizará en el Aula Ambiental.

Horario: 10:15-13:15. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

20 de OCTUBRE

ESCAPE ROOM DEL DOCTOR ZABORRETA

El Doctor Zaborreta ha ideado un devastador plan para destruir el Medio Ambiente de Getxo. Para evitar sus planes, las familias y los grupos participantes deberán de superar y buscar distintas pruebas y pistas que desactivarán el plan del malvado doctor, y conseguir escapar a tiempo del Aula Ambiental. De una manera activa y divertida se trabajarán diferentes aspectos medio ambientales, como la gestión de los residuos, la biodiversidad o el consumo responsable, entre otros. Esta actividad durará entorno a una hora y media y se realizará en grupos de 6 personas como máximo (los grupos han de ser de mínimo de 5 personas).

Se harán dos turnos: a las 10:30 y a las 12:15. Necesaria inscripción previa. Edad mínima recomendada 8 años.

26 de OCTUBRE

JORNADAS EUROPEAS DE PATRIMONIO: EL VIEJO CAMINO DE MARTIARTU (ITINERARIO GUIADO)

Atravesando el valle de Bolue, el viejo camino medieval a Martiartu unía los barrios de Larrañazubi de Berango y Getxo con la casa-torre de los Martiartu, en Erandio. Siguiendo parte de este camino, y parte de un camino fluvial que transcurre a lo largo del arroyo Bolue, se realizará un itinerario guiado desde el humedal hasta la casa torre de Martiartu, a través del cual se darán a conocer aspectos naturales e históricos del valle del Bolue, donde se encuentran algunos de los rincones más naturales de todo el municipio de Getxo.

Edad mínima recomendada 8 años.

Horario: 10:30 – 13:30 (ida y vuelta). Necesaria inscripción previa.

26 de OCTUBRE

NUEVA ACTIVIDAD AUTOGUIADA: SOBREVIVIR EN LA NATURALEZA

En el caso de que un día te perdieces por el bosque, ¿serías capaz de sobrevivir únicamente usando tu guía de supervivencia y lo que puedas encontrar en la naturaleza?

“Sobrevivir en la naturaleza” es una nueva actividad en la que los grupos participantes deberán superar 4 pruebas en menos de una hora: aprender a orientarse, construir refugio, buscar alimento, aprender a curar sus heridas con elementos naturales y aprender a hacer fuego con pedernal. Todo ello utilizando los materiales y guías que hemos creado en el Aula.

Se harán 4 turnos (10:30, 11:15, 12:00 y 12:30). Edad mínima recomendada: 10 años. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

27 de OCTUBRE

MANUALIDADES SOSTENIBLES: ADORNOS PARA HALLOWEEN

Aprovechando la celebración de Halloween los y las txikis participantes podrán elaborar distintos adornos sostenibles, como arañas, brujas, calabazas, etc., mediante la reutilización de residuos como hueveras y cartón.

Se realizarán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

Para mayores de 6 años.